



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Txilibita, Ereñotzu.

Auzoa, udalerrria: Ereñotzu., Hernani.

Dolarearen kokapena: Baserriaren barnean behe solairuan dago toleara, ipar-mendebaldeko izkinan.

Jabea: Inazia Oiarbide.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Duela 15 bat urte arte.

Zenbait datu: Tolare zaharra lehen solairuan zegoen.

Egungo erabilera: Sagardo botilak pilatzeko lekua.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Porlanezko askaren erdian zutik hartutako ardatza du. Ardatzaren goiko erdi hariztatuak estutzeko mekanismoa du, eta hari lotuta beheko aldetik patsolak zanpatzen dituen zurezko urka. Zanpaketan ateratako muztioa aldameneko tina-zulora isurtzen da eta hortik upeletara lekualdatzen dute.

Dolarearen osagarriak:

- Txorrotak, giltzak eta patsolak.
- Altzairu herdoilgaitzezko bi upel.
- Pats-zuloa.

Argazkiak: 24.01, 24.02.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, Hernani.

OHARRAK

- Hezetasun arazoak direla eta, urez betetzen zaie tina-zuloa euria egiten duen bakoitzean. Filtrazio horiek konpondu nahian dabilta.
- Pats-zuloa, sagardo botilaz betea eta hondarrez estalia.

GALDETEGIA

Informatzailea: Inazia Oiarbide.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 23a
